# AMETS GEOMETRIKOAK
# SUEÑOS GEOMETRICOS

J.R. AMONDARAIN, J.M. BAEZ, V. CIVERA, A. CORUJEIRA, DIS BERLIN,
A. GUACHE, L. PALMERO, A. ROJAS, J. USLE, X. VAZQUEZ

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
**Diputación Foral de Gipuzkoa**

Kultura eta Turismo Departamentua
Departamento de Cultura y Turismo

# AMETS GEOMETRIKOAK
# SUEÑOS GEOMETRICOS

J.R. AMONDARAIN, J.M. BAEZ, V. CIVERA, A. CORUJEIRA, DIS BERLIN,
A. GUACHE, L. PALMERO, A. ROJAS, J. USLE, X. VAZQUEZ

Iraila 1993 Septiembre

Juan Manuel Bonet-en erakusketa «kritikoa artista gisa» Kritika tailerraren barruan
Exposición de Juan Manuel Bonet dentro del taller de Crítica «El crítico como artista»

Esta exposición podrá verse en la galería Elba Benítez de Madrid entre el 5 y 23 de Octubre 1993.

bolista eta «triestinoa», bere liburu berriak *(Canciones para interpretar con maracas, Disonancias antárticas, Diario de un buzo)* humore osasungarriz eta lehergarritasun ia Dadá batez josiak, bere pintura txiki eta errepikakorrak, Satieren eta, batez ere, Morton Feldmanen musikarekin korrespondentziak dituena, azken honi buruz honako katalogo honetan mintzo baita, eta aldi berean aurkitu genuen, bakoitzak bere bidetik, erostetxe berberan. Berak koadro guztiak sail berekoak erakutsi nahi zituen, Geometrías Javier Barónen erakusketa kolektiboan bezala. Ez diot bere gurari horri eutsi, garrantzizko zenbait gauza erakustearren, hau da, gertakari geometrikoarekiko bere hurbilketaren aniztasuna, grisetan egindako koadro zertxobait zaharragoari emandako trataera oraindik piktorizista, lerro lodia erabiliz neoplastizista eta japoniar arteko konposketetan egindako lana, eta azkenik, *piano-piano,* isiltasunerantzako bere ibilbidea, aurrekoekin duten oposaketagatik berak «lerro meheko»ak deitzen dituenak. Purutasun eta funtsezkotasun grina izan da geometriaraino eraman duena, pintura trinkoraino, hasieran eta humorea erakutsiz bere *mikrotxipak* zirela esaten zuen koadro haueтaraino, baita bere dinamitari-bertsoetaraino, zeinek erakusten baitute txanponaren beste aldea, *action-painter* ohia, probintziaren kantari ohi eta iparraldeko lanbrogile ohia, gaur egun Miró edo Rymanek grinarazten dutena, eta arte moderno gaietan letra munduko bere kide askoren ezjakinaren aurrean sumintzen dena.

Berehala gogora etorri zitzaidan beste pintore bat, Luis Palmero izan zen. Palmero duela urte batzuk ezagutu nuen bere jaioleku den Tenerife irlan, *Syntaxisen* testuinguruan, bertako erredakzio batzordean baitzegoen. Aldizkarirako egin zuen azal triangular bat eta katalogotan ikusitako obra batzuk gustatu zitzaizkidan. Gerora hobeto ezagutu dut bere pintura. Asmo osoz enfasi-aurkako, asmo osoz formato txiki, asmo osoz apal, baita txiro ere, kanariarren txirotasun harroaz, jokoan jarritako baliabide plastikoei dagokienez. Unibertsaltasun/irlakotasun dialogoa berreskuratzeko, Andrés Sánchez Robayna, Miguel Martinón edo Nilo Palenzuelaren pareko borondatea hogeigarreneko hamarkadan *Rosa de los Vientos*-ekin hasi eta hurrengo hamarkadan *Gaceta de arte* aldizkariak jarraitua. Gai edo aitzakia geometrikoak bere inguruko errealitateak eskuratzen dizkionak dira: itsasoaren zeruertza, untziak, portuak, ortzea, arkitektura herrikoia, bertako leihoak, hormak. Aurrekaritzat du bere koadroetako batzuen bidez omenaldia egin izan dion José Jorge Oramas, gerraurre urreneko Kanaria Handiko pintore bitxia, gazte-gaztetan desagertua, bere herriko argitasuna, misterioa eta metafisika adierazten jakin zuena, bere lagun eta glosa-egile Agustin Espinosak hitzez adierazten jakin zuen bezalaxe. Nazioarteko mailan, *minimala* eta, hau baino lehenago, Ipar Itsasoko Mondrian, abstrakturantzako transiziokoa, zeina berak aipatzen baitu hemen argitaratu ditugun oharretan. Zorrotza eta aldi berean poesia sotilekoa, Palmeroren pintura, prosa zati hauen eta zenbait argitalpenetan skabanaturiko beste batzuen bidez aditzera

simbolista y «triestina», sus libros recientes *(Canciones para interpretar con maracas, Disonancias antárticas, Diario de un buzo)* llenos de un saludable humor y de una explosividad casi Dadá, sus pinturas pequeñas y repetitivas, con correspondencias con la música de Satie y sobre todo de Morton Feldman, sobre el que escribe en el presente catálogo, y al que descubrimos a la par cada uno por nuestra cuenta, en el departamento de discos de los mismos grandes almacenes. El quería mostrar cuadros pertenecientes todos a una misma serie, igual que en la colectiva asturiana de Javier Barón *Geometrías.* He contrariado ese deseo suyo, de cara a mostrar la diversidad de sus aproximaciones al hecho geométrico, su tratamiento todavía pictoricista en un cuadro en grises un poco más antiguo, su trabajo con líneas gruesas en composiciones entre neoplasticistas y japonesas, y por último su caminar hacia el silencio, *piano piano,* en las que él llama, por oposición a las anteriores, «de línea fina». El afán de pureza, de esencialidad, es el que ha conducido hasta la geometría, hasta esta pintura compacta, siempre enmarcada bajo cristal, hasta estos cuadros a los que en un principio y no sin humor él llamaba sus *microchips,* y también hasta sus versos de dinamitero, que constituyen la otra cara de la misma moneda, a este ex-*action painter,* a este ex-cantor de la provincia y ex-cultivador de brumas septentrionales, que hoy se entusiasma con Miró o con Ryman, y se indigna ante la ignorancia en materia de arte moderno de muchos de sus colegas del mundo de las letras.

Otro pintor en el que pensé de inmediato, fue en Luis Palmero. A Palmero lo conocí hace unos años en su isla natal de Tenerife, en el contexto de *Syntaxis,* en cuyo comité de redacción él figuraba. Me gustaron una cubierta triangular que hizo para la revista, y algunas otras obras, vistas en catálogos. Luego he conocido mejor su pintura. Pintura solar, de reverberación, exacta, marinera. Deliberadamente anti-énfasis, deliberadamente pequeño formato, deliberadamente humilde, pobre incluso, con la orgullosa pobreza de los canarios, en cuanto a los medios plásticos en juego. Voluntad, paralela a la de Andrés Sánchez Robayna, Miguel Martinón o Nilo Palenzuela, de retomar el diálogo universalismo/insularidad, iniciado en los años veinte por *La Rosa de los Vientos,* y proseguido en los treinta por *Gaceta de arte.* Los motivos o pretextos geométricos son los que le proporciona la propia realidad en torno: el horizonte marino, los navíos, los puertos, el cielo, la arquitectura popular, sus ventanas, sus muros. Como precedente, al que ha rendido explícito homenaje en algunos de sus cuadros, José Jorge Oramas, un raro pintor grancanario de la inmediata preguerra, desaparecido en plena juventud, y que supo decir la luminosidad, el misterio, la metafísica de su tierra, como supo decirlos, con la palabra, su amigo y glosador Agustín Espinosa. En un plano internacional, el *minimal* y, más atrás en el tiempo, el Mondrian del mar del Norte, de la transición al abstracto, al que él cita en las notas que aquí se publican. Rigurosa y a la vez de una poesía sutil, la pintura de Palmero, explicitada por estos fragmentos en pro-

emana, aurten bertan aurkitu dute penintsulako ikusle usnariek Arcon Manolo Ojedak eskaini zion standari esker eta Elba Benítezekin egindako erakusketa indibidualari esker.

Bururatu zitzaidan hirugarren pintorea, Antonio Rojas pintore tarifarra izan zen. Urte luzeetako hartu-emanek komentzitu naute ezagutzen dudan sortzailerik serio, konsziente eta —terminoaren zentzu ramonianoan— osatu enetarikoa denaz. Madrilen instalatu zenean, ekipaiarekin batera zekarren gauzarik onena konposaketa geometriko handi batzuk ziren. Askoz ere gehiago erakarri zuten nire arreta, egin nion lehen bisitaldian, orduan bizileku zuen M-30aren bestaldeko kale txepel baina metafisiko samarraren apunte txiki batzuek. «Hori da jorratu beharreko bidea», idatzi nuen. Izan ere, halaxe izan zen. Huts egin nuen, halere, geometria eta figurazio nahasketa hori Ventas ondoko Madril mesokratikoko errealitatearen arabera burutuko zela iragarri nuenean. Nahiz eta hau gertatu deneko kasuren bat baden —hemen bertan, apunterik txikienean, leihotik ikusten zuenak iradokitakoan—, gehienetan Rojasek bere koadroetan lantzen duena, bere bizipenak dira, edota hobe esan, bere gogorapenak, bere jaiotzako Tarifari buruzkoak, bere «itzal arteko portukoak», bere fabrika-kaleetakoak, Itsasarteko paisaiarenak.

*Itsasoa eta geometria* izango du izenburu, Terueleko museoak ahal duenean, antolatu asmo diodan erakusketak. Guztiz berezia eta liluragarria gezalaren eta eraikuntzen arteko nahasketa, abstrakzioaren eta itsasorratzen artekoa, zeinetan oinarritzen duen gaur egun bere lana, benetan metafisikoenetarikoa —aipatu beharra dago Rojasek Erromako beka irabazi berri duela— *El retorno del hijo pródigo* erakusketa kolektiboetan izan zirenen artean. Halabehar bitxi baten ondorioz, azken Arco erakusketan Palmerok eta berak hormaz-horma erakutsi zuten beren lana, eta honek, elkarren artean hitzegiteko aukera emateaz gain, konparatismoa egiteko aukera bikaina zabaldu zigun: elkarrekin.ia zerikusirik ez duten historiaren jabe diren bi sortzaile, antzeko arazoei eragiten nola ibil daitezkeen ikusteko aukera, hain zuzen ere.

Xesús Vázquez, jatorriz Orensekoa baina aspaldidanik Santanderren bizi dena, proiektuan txertatzeko interes bizia nuen, lehenik, geometriak argi eta garbi bere lanean beti izan duelako nolabaiteko garrantzia, eta bigarrenez, suspergarri gertatzen zaizkidalako berekiko lankidetzaldiak, zeren, besteak beste, erraza baita lengoaia amankomuna aurkitzea pintore izatez gain poeta *(Mitad del gozne)* eta poundianoa denarekin. Ez nuen hain garbi ikusten, halere, *Batallas, Cavernas* eta laurogeiko hamarkadan eta laurogeita hamarreko lehen urte hauetan mugarrizko horrenbeste balentrien egilea, une honetan, *Amets geometrikoen* esparruari, joko-arauei, benetan egokituko litzaizkiekeen motako kezketan —eta lanean— murgilduta ibiliko ote zenik. Proiektuaren berri eman nionean, sail bat prest zeukala esan zidan, formato txikiko gutxi gora behera 150 koadroz, *tableautinez* osatutakoa —geurea «kamarako» erakusketa gisa itxuratuta zegoen, inondik ere—, hauen erdiak aurpegiak izaki eta beste erdiak geometrikoak. Bi sailak ikusi eta behin, espero zi-

sa y por otros esparcidos por varias publicaciones, ha sido descubierta este mismo año por los más sagaces espectadores de la península gracias al *stand* que en Arco le dedicó Manolo Ojeda, y luego a su individual con Elba Benítez.

El tercer pintor en el que pensé, fue en el tarifeño Antonio Rojas. Muchos años de tratarlo me han convencido de que es uno de los creadores más serios, más conscientes, más «íntegros» —en el sentido ramoniano del término—, que conozco. Cuando se instaló en Madrid, lo mejor que traía en su equipaje eran unas grandes composiciones geométricas. Me llamaron mucho más la atención, en la primera visita que le hice, unos pequeños apuntes de la anodina pero algo metafísica calle del otro lado de la M-30 en la que entonces residía. «Por ahí van a ir los tiros», escribí. Efectivamente así fue. Me equivoqué sin embargo al pronosticar que esa mezcla de geometría y de figuración iba a ejercerse en base a la realidad del Madrid mesocrático post-Ventas. Aunque hay algún caso en que esto sucede —aquí mismo, en el apunte más pequeño, inspirado en lo que ve desde su ventana—, la mayoría de las veces lo que Rojas elabora en su pintura son sus vivencias, o mejor dicho sus recuerdos, de su Tarifa natal, de su «puerto de sombras», de sus calles fabriles, del paisaje del Estrecho.

*El mar y la geometría* se titulará una muestra que pienso organizarle, cuando el Museo de Teruel pueda. Singularísima y fascinante la mezcla de salitre y de construcción, de abstracción y de brújulas, en que se sustenta hoy su obra, una de las más auténticamente metafísicas —Rojas por cierto acaba de ganar la beca de Roma— de las que confluyeron en las colectivas *El retorno del hijo pródigo.* Por una curiosa casualidad, en el último Arco exponían pared con pared Palmero y él, y aquello, además de posibilitar el diálogo entre ellos, fue una excelente oportunidad de ejercer el comparatismo: de contemplar cómo dos creadores con historias que muy poco tienen que ver, pueden andar dándoles vueltas a problemas parecidos.

A Xesús Vázquez, orensano pero afincado de siempre en Santander, tenía mucho interés en incorporarlo al proyecto, primero porque está claro que la geometría siempre ha jugado un papel en su obra, y segundo porque encuentro estimulantes las colaboraciones con él, ya que, entre otras cosas, es fácil encontrar un lenguaje común con un pintor que además es poeta *(Mitad del gozne),* y poundiano. No tenía muy claro, sin embargo, que el autor de las *Batallas,* de las *Cavernas* y de tantas y tantas hazañas clave de los años ochenta y de estos primeros noventa, estuviera en el momento presente, metido en un tipo de preocupaciones —y de obra— que pudieran encajar realmente en el marco, en las reglas del juego, de *Sueños geométricos.* Cuando le comuniqué el proyecto, me informó de que tenía lista una serie de aproximadamente 150 cuadros de formato mínimo, de *tableautins* —la nuestra decididamente se configuraba como una muestra «de cámara»— de los que la mitad eran rostros, la otra mitad, geometrías. Vistas ambas series, resul-